



LIBURUA

Bat, bi, hiru: Irati Jimenez literaturaz



BEGIAK ZABALDUKO ZAIZKIZUE

IRATI JIMENEZ

ELKAR, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

Durangoko azken azokan plazaratu zuen lan hau Irati Jimenezek, eta berak egindakoa bakarriketa izan ez dadin honatx gure aletxo.

Batetik, euskal sistema literarioaren diagnosa egiten du: gure literatura gaxorik eta hoztuta dagoela dio. Zenbait adibide ematen ditu hori ilustratzeko, eta aholkuak sendatzeko bidean ipintzeko. Bestetik, literaturari buruz hitz egiteko gogoia duela dio eta berarentzat literatura ona eta txarra zer diren adierazten du, irakurle, idazle, editore eta kritikarientzako autolaguntza gidak partekatzearekin batera, bere ezagutzatik eta esperientziatik edanda.

Liburuan kritika literarioa egiten dugunoi eskatzen digun moduan, gehien eta gutxien gustatu zaidana adieraziko dut orain. Askok gustatu zait literaturaz

zein gogotsu, konprometitu eta ahaldundu hitz egiten duen. Gainera, literaturaz, hots, testu eta ariketa literarioaz, berak dioen moduan, nola ari den irakurtzean ere gozatu dut. Hainbeste gustatu ez zaidana erreferente androzentriko eta kanonikoak erabiltzea izan da. Salbuespenak egon arren, eta feminismoa esplizituki bultzatu arren, idazlea eta gizona identifikatu ditu tarteka eta erreferente feminista askoren hutsunea sumatu dut han-hemenka.

Jarraian, hiru ideia edo debaterako gai azpimarratu nahi nituzke: saretzeko beharra, denetarik irakurtzea, gorpuztiko hurbilketa.

Bat: Zafarak, Harawayk eta Garcesek argi utzi dute berriki: hauskorak gara eta egoera prekarioan gaude; elkarren beharra dugu bizitzeko, komunitatea

elikatzea funtsezkoa da. Jimenezek euskal literatur sisteman kooperatibismoa, tratu ona eta laguntasuna sustatzen hasi behar gara defendatzen du.

Bi: literatur genero desberdinak, liburu onak eta txarrak, hizkuntza desberdinetan, eta klasikoak eta garaikideak irakurri behar ditugu, ez soilik modako nobedadeak. Tradizioa ezagutu behar dugula errepikatzen du eta hori eginez gero harribitxiak topatuko ditugula erakusten digu (Axular, Xaho, Aresti...).

Hiru: euskal literatura haragiz eta hunkiduraz zikindu eta blaitu behar dugula dio. Umorea, mina, kuriositatea, haserrea izan daitezela idazteko akuilu eta irakurtzean testuari lotuko gaituena. Arrazoiaren, errealismoaren eta ikusmenaren nagusitasuna gainditu eta aske sortzea eta imajinatzea opa digu. ●